

Opor euskaldunak


Udako oporrak euskara ikasteko edo ikasitakoa sakontzeko bala daitezke

KLASEAK, bisitaldi kulturalak, irteerak, herriko jendearekin hartu-emanak. Guzti hori egiteko aukera dago datozkigun hilabeteotan. Baldintza bat eskatzen da, baina: euskara ikasteko gogoak edukitzea. Hori da udako euskal barnetegi, edota famili egonaldietan parte hartzeko bete beharreko baldintza bakarra. Azken batean, egunero euskara erabiltzea da xedea. Batzuk euskara ikasi nahi dutelako hurbilduko dira barnetegietara eta beste batzuk, berriz, euskara ama hizkuntza izanik, gehiago sakondu nahi dutelako.

Urte osoan zehar euskaltegiak lanean aritu ondoren, uda partean barnetegien txanda dator. Ikasleak urtean ikasitakoa borobiltzeko nahiekin hurbiltzen dira, giro euskaldunean murgiltzeko. Izan ere, erdal giroko lekuetan bizitzeak zaildu egiten du euskararen ikasketak. Lazkao, Derio, Artea, Sara, Leitza eta Urepel dira, besteak beste, barnetegien kokaleku. Zazpi probintzietan barreiaturik daude barnetegiak, eta ikaslearen eskuetan dago herria hautatzea. Euskara ikasteaz gain, Euskal Herriko zenbait txoko ezagutzeko aukera paregabea, beraz.

Agenda bete-betea

Klaseak, klaseak eta klaseak. Hori da batek baino gehiagok pentsatuko duena.



■ Barnetegietan urte guztian ikasitako euskara sakontzeko aukera dago.

Barnetegien dinamikan klase ordu dexente daude. Egunean sei bat ordu sartzen dituzte, baina «klaseak aspergarriak direnaren eskema klasikoa puskatu nahian, hainbat aktibitate tartekatzen dira. Adibidez, herriko jendearekin hartu-emanak bultzatuko dituzten aktibitateak, mendira irteerak edota jokuak egiten dira», AEKKo arduradun baten arabera.

Bi barnetegi mota daude: urte osoan lanean dihardutenak eta udakoak. Lehenengora, pertsona helduagoak hurbiltzen dira, «ikuspegi luzeago bat dutenak

Bi barnetegi mota daude: urte osoan lanean jarduten direnak eta udakoak

eta euskara borobiltzeko asmoa dutenak». Langabetuak, ikasketak bukatuak dituztenak dira, beste batzuen artean, barnetegi hauen ikasleak. Udan, aldiz, oporrak direla eta, gazte jendea da gehien animatzen dena. Gaztea izanik,

baina, arazoak egoten dira. Izan ere, hamasei urtetik aurrera matrikulatzeko aukera dago eta «nahiz eta, taldea orekatzen saiatu, batzutan adina arazo bihurtzen da eta horregatik nahiago dugu helduagoak direnekin lana egitea» antolatzaileen hitzetan.

Familietan egonaldiak

Bestalde, etxeko giro batean euskara ikasi nahi duenarentzat ere bada aukera. Kasu honetan, ikasi baino euskaraz bizitzeko asmoe kin antolatzen hasi ziren

egonaldi hauek. Euskara erabiltzeko oztopo haundiena ingurune erdalduna zela ikustean, zenbaitzuk familia zein lagunen bitartez giro euskaldunetara hurbiltzen hasi ziren. Zenbaitzuen ideia hura, egun jende askorentzat giro euskalzalean murgiltzeko bidea bihurtu da. Izan ere, egonaldi hauen helburu nagusia «familia euskaldun bateko partaide izanik, haien bizimoduan integratzea da. Ikasleei ahalik eta hiztun gehienekin ibiltzea aholkatzen diegu. Alde horretatik, familiakoen lana herrikoenganako zubiak sortzea izan behar du», Agurtzane, programaren arduradunaren hitzetan.

Hizkuntza eta bizimodu ezberdinak


Gero eta jende gehiago animatzen da halako esperientzietara, batez ere euskara hobetu edota euskalkiren bat ikasi nahi dutenak. Deialdia euskara ikasi nahi duen orori irekia dagoen arren, goi mailakoentzat egokitua dago. Ikasleak maila beretsukoak dira, baina asmo ezberdinekin joaten dira. Hauen artean euskara hobetu nahi dutenak daude batetik, eta euskalkiren bat ikasi nahi dutenak bestetik. «Maila txikiagoa dutenak gipuzkoa eta nafarroa eskatzen dituzte. Eta behin hizketan ziur xamar daudenak, euskalki-



LIZARRUSTI PARKETXEA

JATETXEA 943 582069 eta ATERPETXEA 943 582066

Aralar Parke Naturaleko Ataria
Beasain-Arbizu errepidean
Lizarrustitik eskura duzue Aralarreko
mendi ibilaldirik ederrenak
Eskalada Eskolak: Jentilbaratza
(Ataun), Huarte, Egino, Etxauri.



Urte Osoan Zabalik



C/. AMEZTI, 1
TEL.: 943 83 2313



20600 ZARAYTZ



Etxarri Aranatz, Aralar eta Urbasa mendikateen erdibidean.

- Taberna-Jatetxea.
- 70 pertsonentzako aterpetxea.
- Ur eta argia duten lursailen alokera.
- Ekintza ezberdinak: zaldiak, tiroa arkuz, BTT, ibilbide megalitikoak.
- Bungalow-en alokairua: asteburuko prezio bereziak irailetik ekainera.

ETXARRI-ARANATZ, 31820 (Nafarroa) - Tel.: 948 - 460 537

Igerilekuak
Taberna-Jatetxea
Erretea

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaia S.L.



Busak 16, 19, 25, 55 eta literak, enpresak, ezkontzak, sagardotegiak, e.a.



Palacio etxea
Laurgain auzoa, 6
20809 AIA - GIPUZKOA
943 13 28 93
943 83 08 80
Mugikorra: 656 78 29 99
656 78 30 01
Faxa: 943 89 05 62



BERTIZKO PARTZUERGO TURISTIKOA
Tel.: 948 59 23 23
Faxa: 948 59 22 75
31720 OIEREGI-BERTIZARANA (NAFARROA)
<http://www.hiruakbat.biaizpe.net>